

**Emakumeen eta
gizonen
berdintasunerako
IV. Foru Plana
2025-2027
Gipuzkoan**

PLAN OPERATIBOA

2

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV Foru Plana Gipuzkoan 2025-2027. Plan Operatiboa.

Sustatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa.

Laguntza teknikoa: AIA ABEE: Eraberria Gunea SL eta Ibain Consultoría SL.

2025

Aurkibidea

1. Aurkezpena

1. or.

2. Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren egitura

7. or.

3. Proiektuen deskribapena

10. or.

1. PROIEKTUA. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Behatokia Gipuzkoan

11. or.

2. PROIEKTUA. Berdintasunerako foru politika ezartzeko kalitate estandarrak

15. or.

3. PROIEKTUA. Berdintasunean eragin positiboa izango duen foru aurrekontua

20. or.

4. PROIEKTUA. Begirada lurraldeari: kalitatezko estandarrak berdintasunerako toki politiketan

26. or.

5. PROIEKTUA. Hurbiltasunetik zaintzea – zaintzen kooperatibak bultzatzea

31. or.

6. PROIEKTUA. Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez

36. or.

4. Proiektuen laburpena. Arau eta programa esparruarekin lerrokatzea

40. or.

01.

Aurkezpena

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (aurrerantzean, IV. Foru Plana) osatzen duten hiru dokumentuetatik bigarren honetan, dokumentu operatiboan, berau lantzeko jarraitutako prozesuaren berri ematen da, banan-banan deskribatzen dira Plana osatzen duten proiektu guztiak, eta haietako bakoitzak EAEn eta Gipuzkoan berdintasunerako erreferentziak diren arau eta programa esparruekin duten lotura zehazten da.



Administrazio publikoetako berdintasunerako plangintza prozesuak hainbat faktore estrategikotan oinarrituta landu behar dira, eta horietatik lau nabarmendu nahi dira:

1. **Arau eta programa esparrua**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasun politikaren koherentzia eta ezarritako mandatuekin eta gidalerroekin lerrokatzea bermatzea ahalbidetzen duten betebeharren eta konpromisoen maila osatzen duena.
2. Erakundearen **ibilbidea** eta aurreko plangintza prozesuen jarraipenetik eta ebaluaziotik lortutako **ikaskuntzak**, baita langileek prozesu horien bidez berenganatu duten ezagutzatik lortutakoak ere.
3. **Genero arrakalak eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiak** eragin nahi den testuinguruan. Esku hartzeak bideratzeko eta berdintasunerako eragina hobetzeko, aldaketak neurtzeko eta beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak egiteko, ezinbestekoa da abiapuntuko egoera ezagutzea generoaren arloko desberdintasun nagusiei dagokienez.
4. **Funtsezko eragileen parte hartzeak**, barne mailan eta kanpo mailan, berdintasuna foru politiken multzoan zeharkakoa izatea laguntzen du, eta demokrazia parte hartzailea gauzatzea ahalbidetzen du.

Premisa horiek bideratu dute *Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027)* egiteko prozesua, jarraian laburbilduta deskribatzen dena.

IV. Foru Planaren Oinarri Estrategikoak dokumentuan jasota dagoenez, Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren jarraipenetik eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arotik ateratako ondorioek eta gomendioek, 2021-2023 aldiari begira, agerian utzi zuten **emaitzetara bideratutako** plan eredu bat definitzeko beharra, hasiera-hasieratik planaren hedapenean arduratu duten foru zuzendaritzaren eta zerbitzuen inplikazioa lortzeko duena. Orientazio estrategiko horixe izan da IV. Foru Plana lantzeko prozesuaren abiapuntua, jarraian deskribatzen diren faseen bidez garatu dena.



1. LEHENENGO FASEA: PLAN EREDUA ETA HELMUGEN IDENTIFIKAZIOA

IV. Foru Plana lantzeko prozesuaren lehenengo faseari esker sortu dira plangintza prozesu berria garatzeko beharrezkoak diren baldintzak. Fase hori, 2024. urtean zehar luzatu dena, funtsezkoa izan da plangintza prozesu berriari legitimitatez eta zorrotasunez heltzeko, eta interpelatutako zuzendaritza eta zerbitzu guztiek parte hartu dute hartan.

Deskribatu den bezala, IV. Foru Planaren plangintza logika berriak konpromiso politiko eta tekniko oso handia eskatzen du. Izan ere, 2024. urtean zehar, 40tik gora bilera eta lan saio egin dira, helburuen arabera edukia izan dituztenak:

- Barneko languneak, Berdintasunerako Organoarenak, plangintzaren ikuspegia definitzeko, prozesuari eta proiektuei buruzko erabakiak hartzeko eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.
- Berdintasunerako Organoaren eta arduratu duten zuzendaritzaren arteko bilera politikoak proiektuen helburuak eta diseinua zehazteko.
- Proiektuak identifikatzeko bilera politikoak eta teknikoak, IV. Foru Plana sortzen hasten den unetik. 6 foru zuzendaritza interpelatzen dituzte.

Hitzartze prozesu pedagogiko horren ondorioz, IV. Foru Planaren proiektuez arduratzen diren foru zuzendaritzek eta zerbitzuek barneratu egin dituzte bai proiektua,

bai bertan duten rola. Gainera, horrelako plan bat hedatzeko beharrezkoak diren aliantzak sortu dira.

Jarraian deskribatzen dira aldi honetako gertaera esanguratsuenak:

- **IV. Foru Planaren Oinarri Estrategikoen definizioa**

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoak *IV. Foru Plana* egiteko prozesua sustatzen du **Oinarri Estrategikoen** dokumentua oinarri hartuta, bertan baitaude jasota plangintzaren gakoak. Lehenengo dokumentu marko horretan jasotako informazioaren artean, Gipuzkoako testuinguruan erantzun beharreko genero desberdintasun nagusiak identifikatzen dira diagnostiko modura. Gainera, plangintza eredu berria eta haren funtsezko elementuak eta edukiak deskribatzen dira. Dokumentu horren inguruko lan prozesua baliagarria izan da bai barne mailako eragileak *IV. Foru Planarekin* lortu beharreko helmugen definizioan erantzukide egiteko, bai *IV. Foru Plana* egiteko hurrengo faseei aldeaz aurreko adostasunetik eta konpromisotik ekin ahal izateko behar den konpromiso politikoa sortzeko.

- **IV. Foru Planaren Helmugen inguruko akordio politikoa**

IV. Foru Planaren oinarri estrategikoen definizioaren zati gisa politikoki adostu da noraino iritsi nahi duen Aldundiak 2027. urtean berdintasunaren arloan. Konpromiso hori 8 helmugatan zehazten da, eta helmuga horiek *EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren* helmugak kontuan hartuta formulatu dira, estu lotuta baitaude foru eskumenekin eta *Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren* lehentasunekin.

Garrantzitsua da azpimarratzea, Berdintasunerako Organoak ezartzen dituen esparru orientabideetatik abiatuta, helmugen identifikazioa eta definizioa haien garapenean eskumenak dituzten foru zuzendaritzek gidatu dutela. Prozesu horrek lineala dirudien arren, denbora eta lan jarraitua behar izan ditu, berdintasunaren zeharkakotasun maila ez baita homogenea foru zuzendaritza guztietan. Izan ere, konpromiso politikorik gabe, helmugak iristea ez litzateke bideragarria izango.

1. helmuga Emakumeen eta gizonen berdintasun maila Gipuzkoan	5. helmuga Zaintzen baldintzak
2. helmuga Berdintasunerako aurrekontua	6. helmuga Berdintasunerako tokiko politikak
3. helmuga Kalitate estandarrak berdintasunerako foru politketan	7. helmuga Emakumeen ahalduntzea
4. helmuga Trebakuntza berdintasunean	8. helmuga Arreta eraginkorra indarkeria matxistaren aurrean

8 helmuga horiek, haiek garatzeko eskumenak dituzten foru zuzendaritzak zuzenean interpelatu dituztenak, **Gipuzkoako Batzar Nagusietan** aurkeztu dira.

2. BIGARREN FASEA: PROIEKTU ESTRATEGIKOEN BATERAKO SORKUNTZA

- Behin helmugak adostu ondoren abiarazi da *IV. Foru Plana* osatzen duten proiektu estrategikoak definitzeko prozesua. Lan saio batekin eman zaio hasiera fase honi, eta **Ahaldun Nagusiak** berak helmugak partekatu ditu helmuga horiek txertatzeko ardura duten Foru Zuzendaritzekin. Gainera, *IV. Foru Planeko* proiektuak orientatu behar dituzten gakoak adostu dira, helmugak iristen lagunduko dutenak.
- *IV. Foru Planaren* 6 proiektu estrategikoen zehaztapena ahalbidetu duen lan prozesuak beste alternatiba batzuk esploratu ditu, betiere aurrez definitutako helmugei lotuak, baina azkenik baztertu egin dira aukera horiek, hainbat arrazoi direla eta. Horien artean nabarmentzekoak dira foru eskumenen muga eta departamentuen lehentasun estrategikoak.
- **Berdintasunerako potentzial eraldatzaile handikoak** dira *IV. Foru Planeko proiektuak*. Horiek diseinatzeko prozesuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bultzatuta, lidergoaren ardura duten foru zuzendaritzak eta foru zerbitzuak izan dira buru.
- Lankidetzaren horren ondorioz, agerian geratu da foru zuzendaritzek eta zerbitzuek ematen duten ezagutza sektorialaren balioa, bai eta Berdintasunerako Organoak berdintasunaren arloan ematen duen zeharkako ezagutza espezializatua ere.
- Oinarri estrategikoen dokumentuak zehatzago jasotzen duen bezala, hauexek izan dira proiektu estrategikoak zehazteko erabili diren **irizpideak**:
 1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoarekin eta *IV. Foru Planarekin* lerrokatuta egotea.
 2. Benetako eragina emakumeen eta gizonen berdintasunean.
 3. Eragina izatea *IV. Foru Planaren* 4 ardatzetako gaitetan.
 4. Elkarriketa foru politika desberdinen artean.
 5. Emaizetara bideratuta egotea eta lankidetzaren zehaztapena.

Hauexek dira azkenik zehaztu diren 6 proiektuak, *IV. Foru Planaren* zati direnak:

- **1. PROIEKTUA. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Behatokia Gipuzkoan**
- **2. PROIEKTUA. Berdintasunerako foru politika ezartzeko kalitate estandarrak**
- **3. PROIEKTUA. Berdintasunean eragin positiboa izango duen foru aurrekontua**
- **4. PROIEKTUA. Begirada lurraldeari: kalitatezko estandarrak berdintasunerako tokiko politiketan**
- **5. PROIEKTUA. Hurbiltasunetik zaintzea – zaintzen kooperatibak bultzatzea**
- **6. PROIEKTUA. Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez**

3. BARNE KONTRASTEAK ETA LURRALDEKO ERAGILEEN PARTE HARTZEA.

Behin proiektuak zehaztu ondoren, kontrastatzeko prozesu bat abiarazi da Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitan eta kanpo mailan, lurraldeko eragileekin, horiekin elkarriketatzea behar-beharrezkoa baita berdintasunerako foru politika modu eraginkorrean aplikatzeko.

Kasu guztietan partekatu da, hainbat lan saiotan, plangintza logika berria. Gainera, kontrastea egiteko espazio motaren arabera, *IV. Foru Plan* osoan edo haren proiekturen batean ardaztu da ekarpenak aztertzeko eta jasotzeko lana.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentuetako berdintasun unitateak.** Departamentuetako administrazio unitate gisa eratuta, haien helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren eta atxikitako erakunde autonomoen, enpresa erakunde publikoen eta merkataritza sozietate foralen gaitasuna indartzea, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan* (aurrerantzean, *Berdintasunerako Legea*), *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauan* (aurrerantzean, *Berdintasunerako Foru Araua*) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako berdintasunerako foru planetan xedatutakoa betetzeko.
- **GUNEA**, Gipuzkoako mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakume elkarten partaidetzarako eta elkarriketarako espazioa.
- **Langunea Gipuzkoako toki erakundeetako berdintasun teknikariekin eta Emakumeen Etxeetako dinamizatzaileekin.**
- **Gipuzkoako Batzar Nagusiak.** Gipuzkoako Batzar Nagusiei, botere legegilea irudikatzen duten heinean, prozesu osoari buruzko informazioa eman zaie, beren kontrol rola erabili ahal izan dezaten eta Aldundiaren ekintzaren gaineko jarraipena egin dezaten berdintasunaren arloan.

4. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANAREN (2025-2027) ONARPENA.

Behin **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak** informatu ondoren, 2025eko apirillean Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Gobernu Kontseiluan** onartu da *Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana 2025-2027*, eta ondoren Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu da.

5. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA (2025-2027) GIZARTERATZEA.

Behin *IV. Foru Plana* onartu ondoren, barne mailan proiektu estrategikoen definizioan inplikaturik egon ez diren foru zuzendaritzari eta zerbitzuei eta, kanpo mailan, Gipuzkoako eta EAEko eragile instituzionalei, ekonomikoei eta sozialei aurkezteko epea ireki da.

02.

**Emakumeen eta
gizonen**

berdintasunerako

IV. Foru Planaren


egitura Gipuzkoan

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana osotasun bat eratzen duten hiru dokumentutan egituratu da. Hiru dokumentu horiek aukera ematen dute elementu giltzarriak berehala identifikatzeko.




Hauexek biltzen dira dokumentu honetan:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako **plangintza eredu berriaren gakoak**.
- **Abiapuntuko egoeraren diagnostikoa**, bai **barne** mailan (indargune eta erronka nagusiak), bai **kanpo** mailan (IV. Foru Planak aurre egin beharreko aukerak eta mehatxuak).
- *IV. Foru Planak* betetzen lagunduko duen **8 helmugak**.
- IV. Foru Planaren **printzipio orientatzaileak**, Planaren misioa eta ikuspegia.



Hauexek biltzen dira dokumentu honetan:

- **IV. Foru Plana lantzeko prozesuaren** faseen deskribapena
- *IV. Foru Plana* osatzen duten **6 proiektu estrategikoen** deskribapena.
- Proiektu bakoitzak **arau eta programa esparruarekin** duen lotura:
 - Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren (2025-2027) helmugak
 - Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa (2024-2027).
 - 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9, emakumeen eta gizonen berdintasunerako.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.
 - EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia.



Proiektu estrategiko bakoitza ondoan zehazten den eskemaren arabera deskribatzen da:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027 Gipuzkoan

KUDEAKETA EREDUA

3

 GIPUZKOA
Euzko Legebiltzaria

3

Hauexek biltzen dira dokumentu honetan:

- *Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027) sustatzeko eta hedatzeko Foru Egiturak.*
- Adierazle sistema:
 - **Testuinguru adierazleak**, IV. Foru Planaren helmugekin lotuak.
 - **Emaitza adierazleak**, IV. Foru Plana osatzen duten 6 proiektu estrategikoetako bakoitzarekin lotuak.
- *Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren (2025-2027) kudeaketa orokorrari eta proiektu bakoitzari begira **aurreikusitako aurrekontua**.*

3.

Proiektuen deskribapena

1. PROIEKTUA.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BEHATOKIA GIPUZKOAN

PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGA	1. helmuga. “Emakumeen eta gizonen berdintasun maila Gipuzkoan ”. Gipuzkoako Genero Berdintasunaren indizea handitzea 2027an 75 puntu iritsi arte.
ARDURADUNA	▪ ESTRATEGIA ZUZENDARITZA. AHALDUN NAGUSIAREN ARLOA
ARDATZA	▪ I. ARDATZA. GOBERNU ONA
KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ Zeharkako politika 1. P.1.1 ekintza lerroa. “Barne egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”.
2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 24. artikulua. “Foru azterlanak eta estatistikak”. ▪ 54. artikulua. “Ikerketa”
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 17. artikulua. “Estatistikak eta Azterlanak”.
EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1. helmuga: “Emakumeen eta gizonen berdintasun maila EAEn”.

DESKRIBAPENA

- Proiektu honen bidez informazio sistema adimendun bat zehaztu, diseinatu eta txertatu nahi da. Sistemak Gipuzkoako Foru Aldundiak garatzen dituen politiketan genero ikuspegia txertatzeko ezinbestekoak diren **berdintasun adierazleen** informazio eguneratua eta haien bilakaera eduki behar ditu.
- Helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako foru zerbitzuek erabiltzen dituzten datuen bilketaren eta tratamenduaren sistematizazioan aurrerapausoak egitea. Berdintasunerako Behatokia GFaren sarean egongo da ostatatuta, erabilera errazte aldera. Berriazko ataria izan daiteke, edo atal bat atari orokorrago batean.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- Beren esku hartzeetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sartzeko lan egiten duten foru zerbitzuek gero eta gehiago **eskatzen** dute **testuinguruari buruzko informazioa eta informazio espezifiko izatea, eguneratua eta sexuaren arabera bereizita**, politika orokorrei buruz hausnartzeko, hobetzeko eta zabaltzeko, bai eta lantzen ari diren proiektu estrategikoei buruz hausnartzeko ere (adibidez, aurrekontuak genero ikuspegiarekin egiteko edo araudiaren genero eraginaren aldeko aurreko ebaluazioari buruzko txostenak egiteko).
- Gaur egun, datuak modu ez-sistematikoan, diskrezionalean eta, zentzu batean, “eskuz” biltzen eta tratatzen dira. Gainera, ikus daitekeenez, foru zerbitzu desberdinek informazio oso garrantzitsua ematen dute berdintasunaren arloan lan egiteko, eta informazio hori beste eremu batzuetatik **optimizatu** eta erabil liteke, hala nola Berdintasunerako Behatokiaren bidez.

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Berdintasunaren arloan Gipuzkoako errealitatearen ikuspegi orokorra eta iraunkorra izatea, foru politikek eragin behar duten genero arrakala nagusien ezagutzan sakondu ahal izateko.
2. HELBURUA	Foru departamentuei sexuaren arabera bereizitako datuak eta adierazle berriak ematea, baita haien interpretazioa ere , beren jarduera hobetzeko eta berdintasunaren arloan dituzten konpromisoak betetzeko.
3. HELBURUA	Erabakiak hartzea erraztea eta berdintasunerako foru politikaren eragina handitzea .

ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	Sistema integratua Informazio eta ezagutza sistema integratu bat garatzea, datuen iturri oso, fidagarri, integratu eta eskuragarrien bidez.
2. EMAITZA	Testuinguruari buruzko eta erreferentziazko informazioa Testuinguruari buruzko eta erreferentziazko informazioaren ezagutza Gipuzkoako genero arrakala nagusien bilakaera identifikatzeko eta kontsultatzeko. Barne informazio iturriak eta eskuragarri dauden genero adierazleak erabiliko dira, eta departamentuen adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereizirik emateko beharrei erantzungo zaie.
3. EMAITZA	IV. Foru Planaren helmuguen betetze mailaren jarraipena <i>IV. Foru Planaren</i> helmuguen betetze mailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiren 2024-2027 Plan Estrategikoaren berdintasunerako adierazle estrategikoen eta Berdintasunerako Politiketarako estrategikotzat jotzen den bestelako informazioaren jarraipena.
4. EMAITZA	Datuak eta adierazleak Foru zuzendaritzen eta zerbitzuen esku jartzea sexuaren arabera bereizitako datuak eta adierazle berriak, besteak beste, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioarekin (GEE) eta genero ikuspegia aurrekontu plangintzan txertatzearekin lotutako txostenak egiteko beharrei erantzun ahal izateko.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. BEHATOKIAREN EDUKIEN DEFINIZIOA			
Berdintasunaren arloko eskumenak eta premiak zehaztea.			
Berdintasunaren arloko barne informazio iturriak eta adierazleak identifikatzea.			
Foru departamentuen adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereizirik emateko behar espezifikoaren bilketa.			

2. BEHATOKIAREN GARAPENA

Informazio eta ezagutza sistema integratu bat lantzea, datu iturri osoen, fidagarrien, integratuen eta eskuragarrien bidez, lurraldean dauden genero arrakalak hobeto eta sakonago ezagutzeko.

--	--	--	--

3. ABIAN JARTZEA

Sistema probatzea

--	--	--	--

Hobetu beharrekoak identifikatzea

--	--	--	--

Aurkeztea eta abian jartzea

--	--	--	--

2. PROIEKTUA.

BERDINTASUNERAKO FORU POLITIKA EZARTZEKO KALITATE ESTANDARRAK

<p>PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 3. helmuga. “Kalitate estandarrak berdintasunerako foru politiketari”. Berdintasunerako Foru Arauak eta Berdintasunerako Legeak esleitzen dizkieten helburuak betetzeko, Berdintasunerako Organoak eta Departamentuetako Berdintasunerako Unitateek langile espezializatuak eta aurrekontu zuzkidura nahikoak izan ditzaten lortzea. ▪ 4. helmuga. “Trebakuntza berdintasunean”. Baldintzak sortzea GFAko langileek berdintasunaren arloko oinarritzko prestakuntza, progresioa eta iraunkorra izan dezaten.
<p>ARDURADUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA. GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA ▪ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA. AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEA
<p>ARDATZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I. ARDATZA. GOBERNU ONA
<p>KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN</p>	
<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.1. ekintza lerroa. “Egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”. ▪ 1.3.2. ekintza lerroa. “Foru langileen barne prestakuntza modu planifikatuan sustatzea, genero ikuspegia foru politika guztietan txertatzeko xedearekin”.
<p>2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 16. artikulua. “Berdintasunerako teknikarien gaikuntza”. ▪ 32. artikulua. “Prestakuntza” eta 56. artikulua. “Prestakuntza”. ▪ 8. artikulua. “Berdintasunerako Organoaren helburuak eta zereginak” eta 9. artikulua. “Baliabideak”. ▪ 11. artikulua. “Departamentuetako Berdintasun Unitateen eginkizunak” eta 12. artikulua. “Baliabideak”. ▪ Lehenengo xedapen gehigarria. “Gipuzkoako Foru Aldundiren egiturak egokitzea”.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 10.3) eta 4). artikulua. “Foru eta toki administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk”. ▪ 18.6. artikulua. “Euskadiko botere publikoetako langileen trebakuntza”. ▪ 57. artikulua. “Prestakuntza”.
EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1. helmuga. “Berdintasunerako Zerbitzuak eta Unitateak”. ▪ 4. helmuga. “Trebakuntza berdintasunean”.

DESKRIBAPENA

Proiektu honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari beharrezko **egiturazko baldintzak** eman nahi zaizkio, berdintasunerako foru politikak genero ikuspegia zeharka eta progresiboki txerta dezan. Berdintasunerako politikak izaera sistemikoa izan dezan, Aldundian garatu behar diren gutxieneko kalitate baldintzak dira abiapuntuko baldintzak, eta foru politika guztiak, bai barnean –Aldundian–, bai kanpoan –gizartean–, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearekin lerrotatu behar dira.

Berdintasunerako politika publikoen kalitate estandarrak adostuta daude EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean eta erreferentziazko berdintasunerako araudian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, hori garatzeko ezinbesteko bi erronkari aurre egin behar zaie:

- a) Foru langileak nahitaez **trebatu** behar dira berdintasunaren arloan, dagozkien eskumenen arabera.
- b) **Antolaketa sistema** eraginkor bat antolatu behar da, berdintasunerako foru politika sustatzeko, koordinatzeko, aholkuak emateko, eta jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.

Proiektu hau abian jartzeak **jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa** ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundia egiten ari den lanari, bai berdintasunerako prestakuntzaren arloan, bai berdintasunerako foru antolakuntzaren arloan, Berdintasunerako Organoaren eta Departamentuetako Berdintasunerako Unitateen bidez.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren Jarraipen Txostenak*, 2023. urtean landuak, agerian uzten du berdintasunerako foru politika behar bezala garatu ahal izateko (berdintasunerako foru antolaketa eta foru langileen prestakuntza berdintasunaren arloan) eduki beharreko egiturazko baldintzekin lotutako artikuluen **garapen maila eskasa**.

Erreferentziazko txosten horrek nabarmendu egiten ditu Berdintasunerako Organoak eta Departamentuetako Berdintasun Unitateek beren baliabideekin arauak esleitzen dizkien zeregin guztiei erantzuteko dauzkaten zailtasunak. Gainera, Foru Departamentu guztiek ez dute Berdintasunerako Unitaterik 2025ean (bi Departamentuk ez dute halako egiturarik) eta langileak ez dira espezifikoak, ez

daude berdintasunean trebatuak. Errealitate horixe bera hobetzeko arlo gisa azpimarratzen da *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025eko Aurrekontuen Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren Txostenean*, izan ere, berdintasunerako foru politikak bere gain hartu behar duen **erronka garrantzitsuenetako bat da** Berdintasunerako Organoaren eta Berdintasunerako Administrazio Unitateen baliabide teknikoak eta administratiboak berrikustea.

- Gipuzkoako Foru Aldundia **Berdintasunerako Barne Plana** lantzen ari da, eta beste neurri batzuen artean foru langileen prestakuntzari dagozkionak aurreikusten dira. Berdintasunaren arloko Prestakuntza Plan Markoa Berdintasunerako Barne Planarekin bat etorrira egituratu behar da.
- *Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak (2020-2023) "Go. HO.4.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifikoa eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea"* Helburu Operatiboa aurreikusten zuen, eta helburu horren garapena desberdina izan da. Ekintza horien zati bezala, berdintasunaren arloan Prestakuntza Plan Marko bat egitea zegoen planifikatuta, baina ez da txertatu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak **urtero berdintasunaren arloko prestakuntza saioak** ematen ditu **langileei zuzenduta**. Prestakuntza hori, nagusiki eta batez ere emakumeek parte hartzen dutelarik, tarteka eskaintzen da, eta borondatezkoa da. 2021-2023 aldian 3 edo 4 prestakuntza saio egin dira urtero, parte hartze maila desberdinekin.

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Berdintasunerako foru politiketan jasotzea erreferentziazko araudiak ezarritako kalitate estandarrak .
2. HELBURUA	Foru langileen berdintasunaren arloko trebakuntza nahita, planifikatuta eta egituratuta egiteko esparrua definitzea eta adostea.
3. HELBURUA	Berdintasunerako foru egiturak egokitzea , Berdintasunerako Organoak eta Departamentuetako Berdintasun Unitateek honako hauek egiteko aukera izan dezaten: <ul style="list-style-type: none"> a. Arauz esleituta dituzten zereginak burura eraman ahal izan ditzaten. b. Beharrezko baldintzak izatea foru departamentuei eta zerbitzuei berdintasunerako arauzko mandatuak aplikatzeko aholkuak emateko.

ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	<p>Berdintasunerako foru antolaketa arian-arian hobetzeko estrategia diseinatzea eta ezartzea.</p> <ul style="list-style-type: none">a. Berdintasunerako Organoko eta Departamentuetako Berdintasun Unitateetako langile beharren eguneraketa.b. Aldundiaren errealitateak abiatuta, beharrei pixkanaka erantzuteko bideak identifikatzea.c. Identifikatutako hobekuntzak lehenesteko eta txertatzeko lan plan bat definitzea eta abiaraztea.d. Helburu instituzionalak lortzea, horiek erdiesteko behar diren antolakuntza formala eta giza baliabideak modu eraginkorren errokatuta.
2. EMAITZA	<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren Prestakuntza Plan Markoa lantzea eta txertatzea.</p> <p>Honako hauek zehaztuko dira Berdintasunaren arloko Prestakuntza Plan Markoaren zati gisa:</p> <ul style="list-style-type: none">a. Foru langileen berdintasunaren arloko prestakuntza bidea, prestakuntza maila bakoitzean espero diren emaitzak adierazita.b. Prestakuntza modalitatearen eta dagozkion baldintzen identifikazioa (nahitaezko prestakuntza edo hautazkoa).c. Sarbide sistema, homologazioa eta akreditazioa.d. Planaren kudeaketa sistema, finantzaketa eta baliabideen esleipena barne.e. Berdintasunaren arloko prestakuntzari buruzko informazioaren erregistroa eta tratamendua Gipuzkoako Foru Aldundian.f. Prestakuntza Plan Markoaren barne komunikazioa eta zabalkundea.g. Bidea pixkanaka ezartzeko prozesua.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. BERDINTASUNERAKO FORU ANTOLAKETA HOBETZEKO ESTRATEGIAREN DISEINUA			
Berdintasunerako Organoko eta Departamentuetako Berdintasun Unitateetako langileen beharren identifikazioa eta horien izaera (unean unekoak edo egiturazkoak). Txostenak.			
Hobekuntzak lehenestea eta horiek abiarazteko lan plana.			
2. BERDINTASUNERAKO ORGANOAREN EGITURAK ETA DEPARTAMENTUETAKO UNITATEAK EGOKITZEA			
Lanpostuen berregituraketa (amortizatzea, sortzea, beste batzuk).			
3. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PRESTAKUNTZA PLAN MARKOA LANTZEA			
Prestakuntza planaren izaerari eta artikulazioari buruzko erabakiak hartzea (baliabideak, plana ezartzeko lan plana, barne komunikazioa, etab.).			
Edukien definizioa.			
4. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BERDINTASUNAREN ARLOKO PRESTAKUNTZA PLAN MARKOA PIXKANAKA TXERTATZEA			
Urteko programazioaren proposamena eta beharrezkoak diren baliabideak eskuragarri jartzea.			
Prozesuaren eta emaitzen jarraipena. Beharrezkoa balitz, sartu beharreko hobekuntzen identifikazioa.			

3. PROIEKTUA

BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUEN FORU AURREKONTUA

PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGA	2. helmuga. “Berdintasunerako politiken aurrekontua”. Pixkana handitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunerako politikak garatzeko duen aurrekontua, Berdintasunerako Legeak ezartzen duen % 1,5era iristeko.
ARDURADUNAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ FINANTZA ETA AURREKONTU ZUZENDARITZA. OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. ▪ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA. AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEA
ARDATZA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I. ARDATZA. GOBERNU ONA
KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.1. ekintza lerroa. “Egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”.
2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 9. artikulua. “Baliabideak”. ▪ 12. artikulua. “Baliabideak”. ▪ 28. artikulua. “Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa”. ▪ Bigarren xedapen gehigarria. “Finantzaketa”.
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 15. artikulua. “Aurrekontuak”. ▪ Seigarren xedapen gehigarria: “Autonomia Erkidegoaren baliabideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikerarako”.
EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 2. helmuga: “Berdintasun politiken aurrekontua”.

DESKRIBAPENA

Proiektu honen bidez marko politiko eta estrategiko bat eman nahi zaio Gipuzkoako Foru Aldundian **genero ikuspegia aurrekontu politikan txertatzeko** egiten ari den lanari.

Berdintasunerako politikaren garapenerako foru aurrekontua pixkanaka handitzeko xedearekin, proiektu honen zerbitzura jarri nahi dira dagoeneko garatzen ari diren **bi prozesu**, legitimitate handiagoa eman nahi baitzaie: **aurrekontu programen analisia** haietan genero ikuspegiaren txertaketa hobetzeko eta **aurrekontu zikloaren genero eraginaren ebaluazioa**.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu programetan genero ikuspegia txertatzea**
 - 2021etik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat **aurrerapauso** egin ditu Aurrekontu Orokorretan genero ikuspegia txertatzeko. Lan hau hasieratik sortu da berariazko ekintza gisa (borondate politikoa eta gaitasun teknikoa behar ditu), eta izaera progresiboa eta jarraitua du (emaitzak lortzeko eta inpaktua izateko denboran iraunkorra izan behar du). Era berean, **prozesu oso konplexua** dela kontuan hartuta garatu da; izan ere, hainbat prozedura txertatzeaz gain, pertsona ugariren eta askotarikoen parte hartzea artikulatzea eskatzen du.
 - Genero ikuspegia Aurrekontu Orokorretan txertatzeko prozesua **esperientzia pilotu** gisa abiarazi zen genero ikuspegiaren txertaketa lau aurrekontu programatan hobetzeko xedearekin. 2023. urtean beste 10 aurrekontu programatara zabaldu zen esperientzia hori eta, 2024an, beste 2 programa batu ziren. Proiektua hasiera-hasieratik diseinatu eta bultzatu da Finantzak eta Aurrekontuak Zuzendaritzaren eta Berdintasunerako Organoaren **baterako lidergoaren** bidez.
 - Egindako lanaren ondorioz, **16 aurrekontu programatan** genero ikuspegia txertatzen espezializatutako **laguntza eta aholkularitza teknikoko prozesuak** sortu dira. Aurrekontu programa guztiak garrantzi handiko gisa sailkatu dira berdintasunari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko duten gaitasunagatik. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 95 aurrekontu programetatik 43 “garrantzi handiko” gisa sailkatu dira, 22 “garrantzi ertaineko” gisa, eta gainerako 30ak, “garrantzi txikiko” gisa.
 - Aurrekontu programak aztertzeke eta aldatzeko **eredu eta prozedura bat definitzeak**, berdintasunean eragin positiboa izango duela ziurtatzeko, lagundu egin du araudi fiskala berdintasunarekin lerrokatzen, bai eta hura egitea berdintasunaren arloan dauden legegintza aginduekin egokitzen ere, bereziki Berdintasunerako Foru Arauak sartutakoak.

■ Aurrekontu Zikloaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa: Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorra eta Kontu Orokorra

- Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2023. urtean, Lurraldearen aurrekontu orokorren genero eragina aztertzeko **metodologia berri bat diseinatzeko** proiektu bat abiarazi zuen. Lan prozesu hori elkarlanean bideratu zen Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren, Ogasuna eta Finantzak Departamentuaren eta Berdintasunerako Organoaren artean. Zehaztutako metodologiak *Genero Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioaren Txosten* (GEAET) berri bat egitea bideratu zuen, *Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontu Orokorra* onartzen dituen Foru Arauaren Aurreproiektuarekin batera. GEAET berria nabarmentzen da egiten duen **analisiaren irismen handiagoagatik, kalitateagatik** eta, gainera, **erakunde osoak** genero ikuspegia duen aurrekontu programazio bat egiteko duen **erantzukidetasunagatik**.
- 2024an, Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesu bat abiarazi zuen **Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra** onartzen duen Foru Arauaren Proiektuaren genero eraginari buruzko txostenak egiteko oinarri metodologikoak definitzeko. Prozesu hori 2025ean amaitu da, eta erakundeak aurre egin behar dio metodologia berri hori aplikatzeari Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2024rako onartutako aurrekontuari buruzko Kontu Orokorra onartzen duen Foru Arauaren Proiektuaren genero eraginari buruzko txostena egiteko.

■ Bestelako informazio garrantzitsua

- 2024an, % **0,24** bideratu da Gipuzkoako Foru Aldundian **berdintasunerako politikak sustatzeko egituretarako** (Berdintasunerako Organoa eta Departamentuetako Berdintasun Unitateak) gastuetara, kudeatu beharreko guztizko aurrekontua kontuan hartuta. Saillkapen organikoa aztertuta, argi ikus daiteke Foru Aldundiak berdintasunerako foru politikak bultzatzeko *2/2015 Foru Arauak* ezarritako aurrekontuaren % 1 baino nabarmen txikiagoa duela.
- *Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2025eko aurrekontu publikoen genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazioari buruzko memorian* jasota dagoenez, EBA fitxan berdintasunerako ekintza nagusitzat jotako 40 ekintzetara bideratutako gastua 8.712.739 eurokoa da, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren **kudeaketarako aurrekontuaren % 0,95¹**. Zifra horrek agerian uzten du, berdintasunaren aldeko ekintzak sartu badira ere, bideratutako baliabideen bolumena mugatua dela oraindik aurrekontu globalarekin alderatuta.

¹ GFaren berdintasunerako politikara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa Berdintasunerako Organoaren eta Departamentuetako Berdintasun Unitateen 2025eko aurrekontuetatik eta 12 aurrekontu programatako 40 berdintasun ekintza nagusietatik abiatuta kalkulatu da. Horien zenbatekoa 11.256.922 € da, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontu propioaren % 0,95 (1.179.073.810 €).

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Aldundiak aurrekontuen arloan bultzatzen duen lana optimizatzea, berdintasunerako politika garatzeko gastua pixkanaka handitzeko .
2. HELBURUA	Berdintasunerako foru politika garatzeko egiturazko baldintzak hobetzea .
3. HELBURUA	Genero ikuspegia duen aurrekontu zikloaren plangintzaren arloan egiten ari den lana sistematizatzea, koherentea izatea eta jasangarria izatea, lurraldeko genero desberdintasunak murriztera bideratutako hobekuntzak sartzea ahalbidetuz.
4. HELBURUA	<i>Aurrekontuen genero eragina aurretiaz ebaluatzeko txostenaren erabilgarritasuna eta eraginkortasuna</i> hobetzea.

ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	Araudia betetzea Pixkana handitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunerako politikak garatzeko duen aurrekontua, EAEko erreferentziazko araudiak ezartzen duen % 1,5era iristeko.
2. EMAITZA	Baliabideak zuzen esleitzea Gastu publikoaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea. Politika publikoen kudeaketan dauden genero joerak ezabatzen dira, baliabideak modu zuzen eta ekitatiboan esleitzen direla bermatzen da, eta saihestu egiten da ondoren konpentsazio ekintzak eska ditzaketen desberdintasunak errepikatzea.
3. EMAITZA	Gardentasuna Gardentasuna indartzea baliabide publikoen kudeaketan. Beste eginbehar bat bezala finkatzen da berdintasunaren arloko kontuak ematea Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak egiterakoan, informazio argia eta eskuragarria ematen da genero berdintasuna sustatzeko planifikatu eta gauzatutako ekintzei buruz.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. GENERO IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA ABIARAZITAKO AURREKONTU PLANGINTZAKO PROZESUAK FINKATZEA			
Genero ikuspegia txertatzeko hobekuntza arloak identifikatzea eta bultzatzea, arlo horretan bidea egin duten 16 aurrekontu programetako bakoitzerako.			
Aurrekontu programa bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak proposatzea eta horien guztien jarraipen orokorra egitea.			
2. AURREKONTU PROGRAMA BERRIAK SARTZEA GENERO IKUSPEGIA DUEN AURREKONTU PLANGINTZAKO PROZESUAN			
Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunerako “garrantzi handiko” programa gisa sailkatuetatik abiatuta, prozesuan sartu beharreko aurrekontu programen proposamen bat identifikatzea eta egitea.			
Sartu berri diren programen aurretiazko azterketa, kasu bakoitzean landu beharreko edukiak identifikatzeko.			
Programa bakoitzaren arduradunak trebatzea genero ikuspegitik egin beharreko analisia egiteko, desberdintasunak identifikatzeko eta aurrekontuaren bidez desberdintasunei aurre egiteko aldaketak edo hobekuntzak proposatzeko.			
Aurrekontu programetan genero ikuspegia txertatzeko ikaskuntza partekatuak identifikatzea, beste aurrekontu programa batzuk aztertzekeo baliagarriak izan daitezkeenak.			

**3. FORU ALDUNDIAREN AURREKONTU PLANGINTZAREN ZIKLOAK
BERDINTASUNEAN DUEN ERAGINA AREAGOTZEKO NEURRIAK GARATZEA**

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025eko Aurrekontu Publikoetan Genero Inpaktuaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko Memoriak dauzkan atalen azterketan urtero identifikatutako indarguneak finkatzea eta ahulezien hobekuntza bultzatzea.

Kontu Orokorraren genero eragina ebaluatzeko txosten eredu berri bat diseinatzea eta txertatzea, aurrerapenak finkatzea eta hobetu daitezkeen alderdiak indartzea.

4. PROIEKTUA.

BEGIRADA LURRALDEARI: KALITATEZKO ESTANDARRAK BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKETAN

<p>PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 6. helmuga. “Berdintasunerako toki politikak”. Gutxienez % 40 handitzea berdintasunerako arloak eta berdintasunean espezializatutako langile berariazkoak dituzten Gipuzkoako udalen kopurua. ▪ 7. helmuga. “Emakumeen ahalduntzea”. Gipuzkoako Emakumeen Etxeak abian eta martxan jartzeko pizgarriak ematea.
<p>ARDURADUNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA. AHALDUN NAGUSIAREN KABINETEA
<p>Ardatzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I. ARDATZA. GOBERNU ONA ▪ II. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
<p>KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN</p>	
<p>GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.1. ekintza lerroa. “Udalerrien baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, lurralde mailako berdintasunerako toki politika modu koherentean, orekatuan eta integratuan garatzeko”. ▪ 1.3.2 ekintza lerroa. “Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta elkarte horien arteko lankidetzeta eta elkarrizketa indartzea”.
<p>2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 18. 1. a)b)c)d)e). artikulua. “Berdintasunerako Organoak sustatu behar ditu berdintasunerako tokiko politikak”.
<p>EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 10. artikulua. “Foru eta toki administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk”. ▪ 18.6 artikulua. “Euskadiko botere publikoetako langileen trebakuntza (kalitate estandarrak)”. ▪ 26.3. artikulua. “Politika (parte hartze soziopolitikoak)”. ▪ 27. 3. eta 5. artikulua. “Elkarteak eta erakundeak”.
<p>EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 3. helmuga. “Berdintasunerako Zerbitzuak eta Unitateak”.

DESKRIBAPENA

Gipuzkoako Foru Aldundia 2010. urteaz geroztik ari da berdintasunerako politikak sustatzen udalerrietan eta mankomunitateetan. Lan horren bilakaerak eta finkapenak **aldeko esparru** bat ahalbidetu dute emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoaren bidez tokiko erakundeei ematen zaien laguntza aztertzeko eta sustatzeko, eragin handiagoa izan dezan. Testuinguru horretan, udalek eta mankomunitateek berdintasunerako politikak bultzatzeko eduki beharreko egiturazko baldintzak hobetzea du xede proiektu honek, ikuspegi bikoitz batetik:

a. Barne ikuspegitik: berdintasunerako toki gobernantzaren esparruan.

Helburua da udaleko berdintasun arloen eta horien langileen egoera eta posizioa hobetzea, bai eta udaleko administrazio prozedurak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean eta erreferentziako berdintasun araudian adostutako kalitate estandarrekin lerrokatzea ere.

b. Kanpo ikuspegia: Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko esparruan eta indarkeria matxista prebenitzeko eta hautemateko esparruan.

Emakumeen Etxeak indartu nahi dira, berdintasunerako udal ekipamendu oinarrizkoak eta estrategikoak diren aldetik, gutxieneko komun batzuetatik abiatuta. Gutxieneko horiek hedapenaren kalitatea bermatuko dute, eta Gipuzkoako lurralderako diseinatuko eta adostuko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hori garatu ahal izateko, **funtsezko lau elementu** hartu behar dira kontuan:

1. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak berdintasunerako politika publikoen kalitate estandarrei buruz hartutako erabakiak aplikatu behar dira **administrazio prozeduretan egiturazko baldintzei** eta genero ikuspegia txertatzeari dagokienez.
2. Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoak **Emakumeen Etxeen lurralde eredu propio bat** definitzeko egindako prozesua. Prozesu horretan, lurraldeko Emakumeen Etxeen ezaugarri komunetan, kudeaketa ereduetan eta beste arlo batzuetan sakontzeko beharra identifikatu zen, betiere Etxe bakoitzaren errealitate propioak errespetatuz.
3. **Emakumeen Etxeen** kasuan, berdintasun arloena ez bezalakoa da abiapuntuko egoera, **ez baitago** etxe horiek abian jartzea eta garatzea bideratuko duen **kalitate estandarrik**. Izan ere, esparru hori proiektu honen bidez diseinatu behar da Gipuzkoako lurraldearen errealitatea aintzat hartuta.
4. Aldez aurretik definitutako kalitate estandarrik abian jartzea ahalbidetuko duten **lan ibilbideak** definitzea, bai berdintasunerako administrazio egitura eta prozeduretarako, bai Emakumeen Etxeetarako. Ibilbide horiek bideragarriak izan behar dute, eta Gipuzkoako lurraldearen eta udalen testuinguruaren eta ibilbideen aniztasuna irudikatu behar dute.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berdintasunerako Organoaren bidez, **esku hartzeko eredu bat dauka**, 2010. urteaz geroztik ezartzen ari dena **berdintasunerako tokiko politikak bultzatzeko**. Gainera, 2022. urteaz geroztik, Gipuzkoako Emakumeen Etxeen lurralde eredu definitzeko oinarri bat du, proiektu esperimentalaren emaitza gisa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna udalerrri mailan bultzatzeko foru politikak aurrera egin du denboraren joanean, eta 2023an elkarrekin lotutako **4 programa edo lan prozesuren** bidez eratu da:
 - **Laguntza ekonomikoa** udalek bultzatzen dituzten proiektu estrategikoei, dirulaguntzen deialdi baten bidez.
 - **Langune egonkorrak** berdintasunerako egiturak eta berdintasunean espezializatutako langileak dituzten udaletako teknikariek.
 - **Laguntza 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten eta berdintasunerako egiturarik ez duten udalei** (*Berdinbidean programa*).
 - “Generoa lan prozeduretan” programa, Udaletako **idazkaritza teknikoei** zuzendua.
- 2024an Gipuzkoan **60 udalerrri dira 10.000 biztanle baino gutxiago dituztenak** eta berdintasun arlorik ez dutenak. Udalerrri horietan biltzen dira Gipuzkoako biztanleen % 20,3, gutxi gorabehera. Udalerrri horietatik batez beste 34 (% 56,6) parte hartzen ari dira Berdintasunerako Organoak *Berdinbidean Programaren* bidez 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten eta berdintasunerako egiturarik ez duten udalerriei zuzenduta garatzen dituen lan prozesuetan.

2021. urtean, *Berdinbidean* programaren esparruan, *Berdinbidean Txikiak* bultzatu zen, **udalerrri oso txikiei**, langile egitura oso txikia dutenei, **egokitutako lan proposamena**. 2023. urtean Gipuzkoako 9 udalek parte hartu zuten *Berdinbidean Txikiak* programan.

Testuinguru horretan, behar-beharrezkoa da foru aldundiak berdintasunerako tokiko politikak bultzatzeko egiten ari den lanaren eraginari eta *Berdinbidean* eta *Berdinbidean Txikiak* programetan egindako lanari buruzko ebaluazioa egitea.

- Azken hamarkadan **nabarmen handitu da** Gipuzkoan **Emakumeen Etxeen kopurua**, eta gero eta gehiago dira baliabide hori daukaten udalerrriak. Emakumeen Etxeak ekipamendu publiko estrategikoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta indarkeria matxistari aurre egiteko.

2024an Gipuzkoako **14 udalerrrik** dauzkate Emakumeen Etxeak. Arrasate eta Eibar izan ziren emakumeen etxeak izaten aurreneko udalerrriak. Ondotik etorri ziren Donostia, Azpeitia, Hernani, Errenteria, Urola Garaia, Zarautz, Zumaia, Elgoibar, Astigarraga, Tolosaldea, Irun eta Usurbil. Ia guztiak dira udal etxeak, denak Urola Garaikoa eta Tolosaldekoa izan ezik, horiek eskualde mailakoak baitira. Etxe bakoitzak dagokion udalerrriaren errealitateari erantzuten dio, baina guztiek dituzte lurralde eredu batez hitz egiteko modua ahalbidetzen duten ezaugarri komun batzuk.

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Berdintasunerako tokiko politikak formalki definitutako berdintasunerako politika publikoen kalitate estandarrekin lerrokatzea , bereziki egiturazko eta prozedurazko baldintzei dagozkienekin.
2. HELBURUA	Emakumeen Etxeek ekipamendu publiko gisa bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzea, lurralde eredia oinarri hartuta. Ekipamenduen eta emandako zerbitzuen kalitatea bermatu nahi da, errealitate eta aldagai desberdinak kontuan hartuta, besteak beste, udalerrien tamaina eta eskura dituzten baliabideak kontuan hartuta.

ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	Abiapuntuko egoera orokorra Emakumeen Etxeen egoerari eta udalen eta mankomunitateen abiapuntuko egoerari buruzko diagnostikoa egitea, haien egituretan eta udal administrazio prozeduretan kalitatezko estandarrak txertatzeko.
2. EMAITZA	Lan ibilbidea Lan ibilbideak definitzea eta ezartzea, tokiko erakundeek, beren ibilbidearen, testuinguruaren eta tamainaren arabera, berdintasunerako egiturei eta prozedurei begira definitutako kalitate estandarrekin zer-nolako lerrokatze maila duten eta haietara iristeko lana nola bideratu behar duten jakin dezaten.
3. EMAITZA	Emakumeen Etxeen gutxieneko baldintzak Emakumeen Etxeek adostutako kalitate estandarrei erantzun ahal izateko gutxienez eduki behar dituzten irizpide komunen identifikazioa.
4. EMAITZA	Zehaztutako eta/edo adostutako kalitate estandarretatik abiatuta, beren berdintasun politika bultzatzen duten udalerrien kopurua handitzea. Administrazio egiturak eta prozedurak dituzten tokiko erakundeek kopurua handitzea eta baldintzak sortzea Emakumeen Etxeek, beren aniztasunean, ezarritako eta/edo adostutako kalitate estandarrei erantzun diezaieten.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. DIAGNOSTIKOA			
Lurraldeko udalen eta mankomunitateen abiapuntuko egoeraren identifikazioa bi esparrutan: <ul style="list-style-type: none"> Berdintasunerako gobernantza; kalitatezko estandarrak toki mailako berdintasunerako egituretan eta administrazio prozeduretan. Emakumeen etxeak: lurralde estaldura, kudeaketa eredia, egitura eta lana, baliabideen zuzkidura, zerbitzuak eta langileen eginkizunak eta profilak. 			
2. KALITATEZKO ESTANDARREN GARAPENA ETA/EDO DEFINIZIOA			
Garapenean lehenetsiko diren estandarren alderdien definizioa.			
Emakumeen Etxeen eta eusten dieten egituren gutxieneko baldintzen zehaztapena, barne hartuta 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak.			
3. KALITATEZKO ESTANDARREN GARAPENA			
Tokiko berdintasun politiketan kalitatezko estandarrak txertatzeko eta horien jarraipena egiteko ibilbideen diseinua eta Emakumeen Etxeen gutxieneko baldintzei buruzko akordioa.			
Berdintasunerako tokiko politikak sustatzeko berdintasunerako foru politika definitutako eta/edo adostutako kalitate estandarrekin lerrotzea.			
Tokiko erakundeei kalitate estandarren inguruan lan egitea ahalbidetuko dieten tresnak garatzea (metodologiak, tresnak, materialak, etab.).			
Prozesuaren eta emaitzen jarraipena eta sartu beharreko hobekuntzen identifikazioa.			

5. PROIEKTUA.

HURBILTASUNETIK ZAINTEA – ZAINZEN KOOPERATIBAK BULTZATZEA

PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGA	5. helmuga. “Zaintzen baldintzak”. Etxeko eremuan zaintzen kooperatibetan aritzen diren zaintzaileen kopurua % 30 inguru handitzea.
ARDURADUNA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ AGENDAKO, BERRIKUNTZAKO ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. ZAINKETAK ETA GIZARTE POLITIKAK DEPARTAMENTUA.
ARDATZA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ III. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAKUNTZA ZUZENA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA
KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN	
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.2 helburua. “Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren, kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea bultzatuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta”.
2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ IV. titulua. II. kapitulua. “Zaintza duin eta unibertsaleko gizarte eredu baterantz”. ▪ 38. artikulua. “Xedapen Orokorra”. ▪ 39. artikulua. “Neurriak”.
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 41. artikulua. “Enplegua lortzea eta lan baldintzak”.
EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 8. helmuga- “Etxeko eta zainketako lana”. ▪ 5. helmuga. “Enplegua”.

DESKRIBAPENA

Proiektu honen bidez, etxeko eremuan gero eta handiagoa den zainketa eskaerari erantzuna eman nahi zaio, eremu horretan lan egiten duten zainzaileen **lan baldintzak hobetzea** sustatuz eta zainketak behar dituzten pertsonen beharretara **egokitutako erantzuna** emanez. Esparru horretan, Gipuzkoan **zaintzak emateko emakumeen kooperatibak bultzatzeko eta indartzeko** ekimen bat diseinatu, ezarri eta ebaluatu nahi da, bizi diren **lurraldean errotuta** egongo dena. Kooperatibak sortzeko eta sendotzeko prozesuaren euskarria antzeko esperientziek ematen duten ikaskuntzari balioa emanez egitea planteatzen da.

Lan baldintza horiek hobetzeak esan nahi du, era berean, etxeko enpleguan **ezkutuko ekonomia** agerian uztea, emakume talde ahulenen laneratzea sustatzea eta balio demokratikoetan oinarritutako zainketen gizarte antolakuntza baterantz aurrera egitea, bai zaintzak jasotzen dituzten pertsonentzat, bai zaintzak ematen dituztenentzat.

Zaintzen arretan eredia aldatzeko beharra dago, genero ikuspegitik eta **ikuspegi komunitarioago eta erantzukideago batetik**, eta, horretarako, haren gakoei buruz hausnartzeko eta sakontzeko espazioak sortu behar dira. Prozesu horrek, Zainketak eta Gizarte Politikak Departamentua dagoeneko lanean ari baita Zainketen eta Gizarte Politiken 2030 Agendaren esparruan, aukera emango du emakumeen zaintzen kooperatibak korporazio handiek garatutako beste enpresa eredu batzuetatik kualitatiboki bereizteko.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- Historikoki, zainketen hornidura ikuspegi “**familiarrago**” batetik diseinatu da, non zainketa lanak ohikoak izan baitira familietan, eta familien barruan, emakumeen artean. Erakundeek, merkatuak eta komunitateak berak zainketen horniduran duten erantzukizuna baldintzatu, bideratu eta/edo diluitu duen esparru hori aurrerapausoak ematen ari da.
- Gipuzkoak epe ertain eta luzera aurre egin beharreko **erronken** artean hauexek nabarmentzen dira: biztanleriaren zahartze progresiboa, migratzaileen gizarteratzea eta laneratzea, zainketen lan merkatuaren birkonfigurazioa, teknologia berrien eragina, arreta zentroetan kudeaketa hobetzeko eta zerbitzu publikoetan eraginkortasuna hobetzeko premia. Hori guztia etengabe aldatzen den testuinguruan, beste inguruabar batzuen artean nabarmentzen baitira nahi ez diren bakardadeak eta familia eruedetan gertatzen ari diren aldaketak.

Errealitate horri erantzuteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak legegintzaldi honetarako **Plan Estrategiko** bat diseinatu du, **118 jarduera biltzen dituena bizimodu osasungarria sustatzeko**, sentsibilizazio, prebentzio eta zainketak pertsonalizatzeko ekintzen bidez, barne hartuta alderdi emozionala, komunitate bateko kide izatea eta bizimodu orekatua, osoa eta nahi ez den bakardaderik gabeko bizimodua izateko aukera.

- **Zainketen eta Gizarte Politiken 2030 Agendak** berak ezartzen du bere jarduera ildoetako bat dela berrikuntzarako eta zainketen pertsonalizatorako azpiegiturak, euskarriak eta laguntzak garatzea. Horretarako, zainzaile profesionaleri eta ez-

profesionalei laguntzeko programak garatzea planteatzen du (8. jarduera), baita kooperatibei etxean zaintzeko laguntza eskaintzea ere (28. jarduera).

- **Zaintzen kooperatiben** ekimenak ez dira berriak Gipuzkoan, eta badira Aldundiak babestutako esperientzia batzuk ere, hala nola Maitelan; etxeko arreta emateko zerbitzu kooperatiba bat da, emakume migratzaileek sortua, haien lan baldintzak hobetzeko eta etxeko lanaren erregimen berezitik ateratzeko antolatua, betiere pertsonak erdigunean jartzen dituen arreta ereduarekin koherenteagoa den planteamendutik. Maitelan kooperatibaren esperientziak urteotan agerian utzi dituen ikaskuntzen artean, honako hauek nabarmentzen dira, proiektu honi begira erreferentziazkoak izan bailitezke:
 - Garrantzitsua da **lurraldera egokitzea**, ekimenak tokiko sare komunitarioarekin artikulatzea eta zaintza ekosistemak egotea, zaintza lanetan hurbiltasun eta erantzukidetasun eredu bat bultzatzeko.
 - Beharrezkoa da balizko kooperatibaren xede den **publikoaren egoera eta ezaugarri bereizgarrietara egokitutako** prozesua ahalbidetuko duten baliabideak eskuragarri jartzea.
 - **Plangintza egingarria** izan behar da, kontuan hartuz denboran luze jotzen duten prozesuak direla, oinarriko talde bat (masa kritikoa) izatea eskatzen dutela, ahal dela jendetsua, handik azkenik kooperatibistak sor daitezzen.
 - Etorkizuneko kooperatibistak **enpresa kudeaketan trebatzeko** prozesuan sartu behar dira.
 - **Administrazioak eta** kooperatibei laguntzen dieten **beste eragile komunitario batzuk** inplikatu behar dira, kooperatibak ekonomikoki bideragarriak eta lehiakorrak izan daitezzen.

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Etxeko esparruan zaintza lanak ikusaraztea, babestea eta duintzea. Etxeko enpleguan lan egiten duten emakumeen baldintzak hobetzea, sentsibilizatzeko ekintzak bideratuz eta zaurgarritasun handieneko egoerei aurre egiten dieten emakumeei aholkuak emanez.
2. HELBURUA	Prestakuntza prozesuak diseinatzea eta abiaraztea. Zaintza arloko prestakuntza espazioak sortzea eta kooperatibak diseinatzea eta kudeatzea, zerbitzuak emateko antolakuntza eredu gisa.
3. HELBURUA	Zaintza komunitarioa bultzatzea. Zainketa ekosistemak optimizatzea komunitatearen parte hartzea sustatuz, Gipuzkoako gizarte sarea indartuz eta baliabideak ikuspegi kolaboratibo eta inklusibo batetik artikulatuz.

ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	Zaintzen kooperatibak Kalitatezko zaintzak emateko ekimen berritzaileen kopurua handitzea, esparru horretan lan egiten dutenen baldintza hobekak ahalbidetuko dituztenak (emakumeen zaintzen kooperatibak).
2. EMAITZA	Kooperatibistak Etxeko eremuan zaintzen kooperatibetan aritzen diren zaintzaileen kopurua handitzea.
3. EMAITZA	Zaintzaileen kualifikazioa Zaintzen arloan lan egiten duten emakumeen kualifikazioa hobetzea zaintzen horniduran eta zaintza horiek ematen diren enpresa ekimenen kudeaketan ikuspegi komunitarioa aintzat hartzen duten prestakuntza programen bidez.
4. EMAITZA	Lan baldintzak hobetzea Etxeko eremuko emakume zaintzaileen lan baldintzak hobetzea.
5. EMAITZA	Eragile komunitarioak Zaintzen horniduran inplikatzeko diren eragile komunitarioen kopurua eta mota handitzea.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. PRESTAKUNTZA PROGRAMA ZAINKETEN ARLOAN			
Zaintzetan eta kooperatiben sorreran eta kudeaketan ikuspegi komunitario batetik trebatzeko programa bat diseinatzea eta ezartzea.			
Trebatzeko programaren jarraipena eta ebaluazioa.			
2. ZAINZEN KOOPERATIBAK SORTZEKO ETA HANDITZEKO PROGRAMA			
Ezari nahi den zaintzen kooperatiben ereduaren inguruko hausnarketa estrategikoa eta bideratu beharreko prozesua.			
Lan egingo den formulari buruzko erabakia (kooperatiba bat sortzea, kooperatibistak jada baden kooperatiba			

batean biltzea, etab.).			
Proiektuaren diseinua eta beharrezkoak diren baliabideen aurreikuspena.			
Zaintzen Kooperatibak Ebaluatzeko Programa bat diseinatzea eta ezartzea.			
3. ESPARRU KOMUNITARIOKO ERAGILEEN ROLA BULTZATZEA			
Zaintzen kooperatiba bat bultzatzeko abiapuntuko baldintza hobekak dituen eskualde bat identifikatzea eta hautatzea.			
Abian jartzen parte hartzen duten tokiko erakundeekin eta eragileekin lan egitea.			

6. PROIEKTUA.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

ALDUNDIAK INDARKERIA

MATXISTARI EGITEN DION

ARRETAREN BIDEZ

PROIEKTUAK LAGUNTZEN DUEN IV. FORU PLANAREN HELMUGA	8. helmuga. “Arreta eraginkorra indarkeria matxistaren aurrean”. Gutxienez % 80 handitzea berdintasunerako arloak eta berdintasunean espezializatutako langile berariazkoak dituzten Gipuzkoako udalen kopurua.								
ARDURADUNAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ HAURREN BABESEKO, GIZARTE INKLUSIOKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN ARRETA ZUZENDARITZA. ▪ ZAINKETAK ETA GIZARTE POLITIKAK DEPARTAMENTUA. 								
Ardatzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ II. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ▪ IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK 								
KOHERENTZIA ERREFERENTZIAZKO ARAU ETA PROGRAMA ESPARRUAREKIN									
	<table border="1"> <tr> <td data-bbox="312 1227 746 1496"> GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA </td> <td data-bbox="746 1227 1407 1496"> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.4. ekintza lerroa. “Emakumeek lurraldean jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, kontuan harturik indarkeria modu desberdinak eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgarritasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik”. </td> </tr> <tr> <td data-bbox="312 1496 746 1653"> 2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO </td> <td data-bbox="746 1496 1407 1653"> <ul style="list-style-type: none"> ▪ V. kapitulua. “Indarkeria matxistari gabeko bizitzak”. ▪ 54. artikulua. “Ikerketa”. ▪ 57. artikulua. “Arreta eta babesa”. </td> </tr> <tr> <td data-bbox="312 1653 746 1899"> EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua. </td> <td data-bbox="746 1653 1407 1899"> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 58. artikulua. Antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta onbideratzeko neurri orokorrak. ▪ 60. artikulua. Arreta soziala. </td> </tr> <tr> <td data-bbox="312 1899 746 1980"> EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA </td> <td data-bbox="746 1899 1407 1980"> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 11. helmuga “Arreta integrala”. </td> </tr> </table>	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.4. ekintza lerroa. “Emakumeek lurraldean jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, kontuan harturik indarkeria modu desberdinak eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgarritasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik”. 	2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ V. kapitulua. “Indarkeria matxistari gabeko bizitzak”. ▪ 54. artikulua. “Ikerketa”. ▪ 57. artikulua. “Arreta eta babesa”. 	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 58. artikulua. Antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta onbideratzeko neurri orokorrak. ▪ 60. artikulua. Arreta soziala. 	EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 11. helmuga “Arreta integrala”.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. ▪ 1.3.4. ekintza lerroa. “Emakumeek lurraldean jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, kontuan harturik indarkeria modu desberdinak eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgarritasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik”. 								
2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	<ul style="list-style-type: none"> ▪ V. kapitulua. “Indarkeria matxistari gabeko bizitzak”. ▪ 54. artikulua. “Ikerketa”. ▪ 57. artikulua. “Arreta eta babesa”. 								
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 58. artikulua. Antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta onbideratzeko neurri orokorrak. ▪ 60. artikulua. Arreta soziala. 								
EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 11. helmuga “Arreta integrala”. 								

DESKRIBAPENA

Proiektu honen bidez **foru esku hartzeak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen ahalduntze prozesuetan duen eragina** ezagutu eta **handitu** nahi da. Erreferentziazko araudiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren “*Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku hartzeko ereduak*” ezartzen dute biktima biziraileen ahalduntzea esku hartze publikoaren xedea ez ezik emakumeek bizi duten edo bizi izan duten kaltea gainditzeko “bitartekoa” edo “tresna” ere izan behar duela.

Esparru horretan, proiektu honen bidez jakin nahi da **nola laguntzen den Aldundiaren egoitza baliabide espezializatuetatik** emakumeak ahalduntzeko, eta nola eragiten duen baliabide horietatik bideratzen den esku hartzeak haien prozesuetan.

Horretarako, emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Arretarako Foru Zerbitzua zehazten ari den adierazle sisteman oinarrituta, **eragin hori neurtzea** ahalbidetuko duen sistema bat (adierazleak, metodologia, prozesuak, etab.) **definitu eta probatu** behar da, eta sistema horrek indarkeria matxistaren adierazpen mota orori eta errealitate hori bizi duten emakumeen askotariko errealitateei aplikatzeko modukoa izan behar du.

Sistema hori baliabideetatik indarkeria matxistari ematen zaion arretaren **jarraipen eta ebaluazio sistemaren** parte gisa integratuko da. Eraginaren “neurketan” lortutako emaitzek aukera emango dute Aldundiaren egoitza baliabide espezializatuetatik bideratutako esku hartzearen irismena eta eraginkortasuna berrikusteko eta, horrela, artatzen diren askotariko emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboko prozesuetan Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat funtsezkoak diren alderdiak indartu ahal izateko.

TESTUINGURU INSTITUZIONALA

- Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Arretarako Zerbitzuan, *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren arloko Esku hartze Ereduaren* esparruan, **ekintza-hausnarketa prozesuak** bideratzen ari dira emakume biktimei ematen zaian arretatik jasotzen den informazioa biltzeko, sistematizatzeko eta aztertzeko xedearekin. Prozesu horiek indarkeria matxistari arreta emateko zerbitzuen entitate hornitzaileen taldearekin (AMUUN) elkarlanean bideratzen dira.
- Prozesu horren zati gisa, 2022. urtean lehen urratsak egin ziren **jarraipenerako adierazle sistema** bat definitzeko, ereduak berak ezarritako estandarren betetze maila neurtu ahal izateko. Gaur egun, *Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren arloko Esku hartze Ereduak* guztira 144 adierazle identifikatzen ditu, eta horietatik 70 estrategikotzat edo lehentasunezkoztat jo dira. Identifikatutako adierazleetatik zortzik emakumeen ahalduntzean zer-nola laguntzen duten neurtzen dute, indarkeria matxistari arreta emateko foru baliabideen esku hartzearen ondorioz. Horiek guztiak lehentasunezko adierazleak dira, profesionalei baliabideen berri ematen baitiete.
- Azken urteetan hobetu egin dira **Aldundiaren egoitza baliabide espezializatuak egonaldi laburretan, ertainetan eta luzeetan**. Gainera, baliabide espezializatu berriak abiarazi dira, hala nola *Garaitu*² eta *Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru*

² Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu publikoa da Garaitu. Arreta psikosoziala, sozio-hezitzailea eta sozio-juridikoa eskaintzen du indarkeria matxista eta sexu erasoan aurrean, Gipuzkoa osoko emakumeek, haien adin txikiko seme-alabek eta haien kargura dauden beste pertsona mendekoek jasaten duten indarkeria matxistaren egoerei arreta emateko xedearekin.

Zerbitzua. Inguruabar horri esker, esparru ezin hobea sortu da Aldundia lantzen ari den adierazle sistemaren definizioan sakontzeko, aukera ematen baitu emakumeen ahalduntzeari lotutako emaitzen adierazleak eta eragina doitzeko.

HELBURUAK

Deskribatutako esparruak proiektuaren helburuak bideratzen ditu, jarraian deskribatzen direnak:

1. HELBURUA	Emakumeen ahalduntze prozesuetan Aldundiaren egoitza baliabideen eragin positiboa handitzea.
2. HELBURUA	Esku hartzean emakumeen ahalduntzea modu eraginkorrean txertatzea azterketa aldagai gisa.

3.6.4 ESPERO DIREN EMAITZAK

Jarraian deskribatzen dira programazio aldia amaitzean lortzea espero diren emaitzak:

1. EMAITZA	Hobetzeko elementuak. Aldundiaren egoitza baliabide espezializatuen arretan hobetzeko elementuak identifikatzea eta txertatzea, "Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku hartzeko ereduarekin" lerrokatu ahal izateko.
2. EMAITZA	Eragina neurtzea. Foru esku hartzearen eragina ezagutzea ahalduntze prozesuetan.
3. EMAITZA	Lan sistema. Lan sistema definitua, probatua eta indarkeria matxistaren aurreko arretaren jarraipenerako eta ebaluaziorako foru sisteman integratua.

GARATU BEHARREKO NEURRIAK

NEURRIAK	KRONOGRAMA		
	2025	2026	2027
1. AHALDUNTZE ADIERAZLEEN DEFINIZIOA			
Dauden adierazleak berrikustea, egokitzea eta indartzea.			
Informazioa biltzeko metodologiaren eta tresnen diseinua.			
2. LAN SISTEMA BI BALIABIDE ESPEZIALIZATUTAN TXERTATZEA			
Emakumeen egoera baliabidean sartzen direnean (oinarriko ildoak).			
Emakumeen egoera baliabidetik irtetea (esku hartzearen eragina prozesuetan).			
3. ESKU HARTZEKO EREDUAREN HOBEKUNTZA			
Hobekuntzen identifikazioa emaitzetan oinarrituta eta aplikazioa.			
Prozesua beste foru baliabide espezializatuera bideratzea.			

04.

**Proiektuen
laburpena.**

**Arau eta programa
esparruarekin
lerrokatzea**

GIPUZKOA				EAE	
GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA PROIEKTUA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANAREN HELMUGAK	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA
1. PROIEKTUA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BEHATOKIA GIPUZKOAN	1. HELMUGA. “Emakumeen eta gizonen berdintasun maila Gipuzkoan”.	1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. Zeharkako politika 1. P.1.1 ekintza lerroa. “Barne egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”.	24. artikulua. “Foru azterlanak eta estatistikak”. 54. artikulua. “Ikerketa”.	17. artikulua. “Estatistikak eta Azterlanak”.	I. ARDATZA. GOBERNANTZA. 1. helmuga: “Emakumeen eta gizonen berdintasun maila EAEn”.
2. PROIEKTUA. BERDINTASUNERAKO FORU POLITIKA EZARTZEKO KALITATE ESTANDARRAK	3. HELMUGA. “Kalitate estandarrak berdintasunerako foru politiketan” 4. HELMUGA. “Trebakuntza berdintasunean”.	1.1 ekintza lerroa. “Egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”. 1.2. ekintza lerroa. “Foru langileen barne prestakuntza modu planifikatuan sustatzea, genero ikuspegia foru politika guztietan txertatzeko xedearekin”.	16. artikulua. “Berdintasunerako teknikarien gaikuntza”. 32. artikulua. “Prestakuntza” eta 56. artikulua. “Prestakuntza”. 8. artikulua. “Berdintasunerako Organoaren helburuak eta zereginak” eta 9. artikulua. “Baliabideak”. 11. artikulua. “Departamentuetako Berdintasunerako Unitateen eginkizunak” eta 12. artikulua. “Baliabideak”. Lehenengo xedapen gehigarria. “Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiturak egokitzea”.	10.3) eta 4). artikulua. “Foru eta toki administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk”. 18.6. artikulua. “Euskadiko botere publikoetako langileen trebakuntza”. 57. artikulua. “Prestakuntza”.	I. ARDATZA. GOBERNANTZA. 3. helmuga. “Berdintasunerako Zerbitzuak eta Unitateak”. 4. helmuga. “Trebakuntza berdintasunean”.
3. PROIEKTUA. BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUEN FORU AURREKONTUA	2. HELMUGA. “Berdintasunerako aurrekontua”.	1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. 1.3.1. ekintza lerroa. “Egiturazko baldintzak indartzea berdintasunerako foru politika garatzeko”.	9. artikulua. “Baliabideak”. 12. artikulua. “Baliabideak”. 28. artikulua. “Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa”. Bigarren xedapen gehigarria. “Finantzaketa”.	15. artikulua. “Aurrekontuak”. Seigarren xedapen gehigarria. “Autonomia Erkidegoaren baliabideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politiketarako”.	I. ARDATZA. GOBERNANTZA. 2. helmuga: “Berdintasun politiken aurrekontua”.

GIPUZKOA				EAE	
GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. FORU PLANA PROIEKTUA	GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO HELMUGAK	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA	2/2005 FORU ARAUA, MARTXOAREN 9KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.	EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIA
4. PROIEKTUA. BEGIRADA LURRALDEARI: KALITATEZKO ESTANDARRAK BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKETAN	6. HELMUGA. “Berdintasunerako tokiko politikak”. 7. HELMUGA. “Emakumeen ahalduntzea”.	1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. 1.3.1. helburua. “Udalerrien baldintzak indartzen eta hobetzen laguntzea, lurralde mailako berdintasunerako toki politika modu koherentean, orekatuan eta integratuan gara dadin”. 1.3.2 helburua. “Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa indartzea, eta Foru Aldundiaren eta elkarte horien arteko lankidetzeta eta elkarriketa indartzea”.	18. 1. a)b)c)d)e). artikulua. “Berdintasunerako Organoak sustatu behar ditu berdintasunerako tokiko politikak”.	10. artikulua. “Foru eta toki administrazioak eta beste erakunde publiko batzuk”. 18.6 artikulua. “Euskadiko botere publikoetako langileen trebakuntza (kalitate estandarrak)”. 26.3. artikulua. “Politika (parte hartze soziopolitikoa)”. 27. 3. eta 5. artikulua. “Elkarteak era erakundeak”.	I. ARDATZA. GOBERNANTZA. II. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA 3. helmuga. “Berdintasunerako Zerbitzuak eta Unitateak”.
5. PROIEKTUA. HURBILTASUNETIK ZAINTZA – ZAINZEN KOOPERATIBAK BULTZATZEA	5. HELMUGA. “Zainketen baldintzak”.	1.2 helburua. “Pertsona guztien zaintza eta babesa bermatzea, arreta pertsonalizatuaren kalitatezkoaren eta inklusiboaren bidez, gizarte zerbitzuen sarea bultzatuz, konektatuz eta ebaluatuz, berrikuntzan eta berdintasunean oinarrituta”.	IV. titulua. II. kapitulua. “Zaintza duin eta unibertsaleko gizarte eredu baterantz”. 38. artikulua. “Xedapen Orokorra”. 39. artikulua. “Neurriak”.	41. artikulua. “Enplegua lortzea eta lan baldintzak”.	III. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAKUNTZA ZUZENA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA 8. helmuga- “Etxeko eta zainketako lana”. 5. helmuga. “Enplegua”.
6. PROIEKTUA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ALDUNDIAK INDARKERIA MATXISTARI EGITEN DION ARRETAREN BIDEZ	8. HELMUGA. “Arreta eraginkorra indarkeria matxistaren aurrean”	1.3. helburua. “Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunera bidean aurrera egitea”. 1.3.4. helburua. Emakumeek lurraldean jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, kontuan harturik indarkeria modu desberdinak eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgarritasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.	V. kapitulua. “Indarkeria matxistari gabeko bizitzak”. 54. artikulua. “Ikerketa”. 57. artikulua. “Arreta eta babesa”.	58. artikulua. “Antzemateko, artatzeko, koordinatzeko eta onbideratzeko neurri orokorrak”. 60. artikulua. “Arreta soziala”.	IV. ARDATZA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK 11. helmuga “Arreta integrala”.